



LIBURUA

Algaraka



DANI BLANCO

ALGARA MUTILATUAK

ANE LABAKA MAYOZ

SUSA (LISIPE BILDUMA), 2021

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Lisipe bildumak atera berri duen berderatzigarren liburua da Ane Labaka Mayozen *Algara mutilatuak* saikera. Oro har euskal kultura begirada feministatik ikusteko aukera eskaintzen digu bildumak eta zehazki azken zenbaki honek umoreari egiten dio errepassoa.

Aurkibidera joan naiz zuzenean eta gogotsu ekin diot irakurketari. Azkar ohartu naiz liburu motza izanagatik informazio asko jasoko nuela. Liburuak, artikulak, autoreak eta elkarrizketak aipatzen ditu Labakak bere lana hornitu eta justifikatzeko. Bertsolariei egindako elkarrizketak ere erabili ditu ikuspegiak zabaldu eta bertsolaritzaren kasu partikularra erakusteko asmoz.

Josune Muñozek erakutsia da saikerak irakurtzeko modu aproposena aurkibidean interes gehien pizten digun kapitulutik hastea dela. Nire irakasleei kasu egin ohi diet eta laugarren

kapitulura joan naiz zuzenean. Planteamendu bereziki beharrezkoa iruditu zait egiten duena, eta niri zer pentsatu gehien eman didana izan da. Umorea egiten duten emakumeen eta ikusleen arteko konplizitate beharraz idazten du Labakak. Publikoko emakumeak ikusiak izateko beraietaz umorea egin beharraz edota algara libre eta mutilatu gabe egin ahal izateri buruz ari da hemen.

Umorearen definizio eta begirada historikoarekin ematen dio hasiera liburuari. Umorea zer den, zertarako erabiltzen den eta ideia hori historikoki nola sortu den kontatzen zaigu lehenengo atalean. Modu arinean kontatua dago, ulerterraza da eta aldi berean gaiari tiraka gehiago irakurtzeko aipamen dezente iradokitzen ditu autoreak.

Bigarren eta hirugarren kapituluetan sarriago entzun ditugun eztabaidak

planteatzen dira. Umorea nork eta zein norabidetan egiten duen eta umoreak mugarik izan behar ote duen. Eztabaida entzunagoak baldin badira ere, Labakak beste sortzaileen bitartez ertzak bilatu dizkio gaiari. Ez du erantzun bat eta bakarra proposatzen eta iruditu zait hitza hartu duten sortzaile guztiek askatasuna dutela ipar. Libreago sortzea, libreago barre eginaraztea eta libreago barre gitea. Bizipen desberdinetatik abiatu badira ere feminismoak espazio komunak eta algara konpartituak eman dizkie.

Ane Labaka hainbat proiektutan ari da lanean; Txakur Gorria kolektiboko kide da, bertsolaria, hainbat ikerlan ere egin ditu eta *Erradikalak gara* eta *Erradikalak ginen* antzezlanak sortu ditu Beatriz Egizabalekin batera. Eskerririk asko barrea eragin, barrea leherrarazi eta barrearri boterea emateagatik. ●